



Pedro eta Otsoa

Sergei Prokofiev

Kontalari eta orkestrarako musika-ipuina, op. 67

Suzie Templetonek zuzendutako
“Pedro eta otsoa” animazio film laburraren proiektzioa

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa
Zuzendaria: Carl Davis

Música en Acción

2009-2010 haurrentzako eta familientzako kontzertuak
Kultura eta Turismo Saila. Nafarroako Gobernua

Gida didaktikoa: Uxue Uriz Sucunza

Sarrera

Sergei Prokofieven musika eta ipuina

Sergei Prokofiev

Lanaren jatorria

Suzie Templetonen filma

Pertsonaiak: Pedro, otsoa eta gainerakoak. Lanerako proposamenak.

Pedro, protagonista

Txoria eta txirula hegalaria

Ahatea, oboea urmaelean

Katua, klarinete katu-antzekoa

Aitona, fagot marmarti samarra...

Ehiztariak... burrunbatsuak!

Tronpa ulukaria? Otsoa da!

Jarduerak

Instrumentuak, melodiak eta pertsonaiak

Eta hala bazan, ez bazan...

Soinu-banda

Lapitza eskuan

Deskribatu egiten duen musika

Bibliografia

Diskografia

Eranskinak



Sarrera

Lehiaketa batean galdera honako hau izanez gero “aurrentzako zein musika-ipuin ezagutzen duzu?”, *Pedro eta otsoa* lehenengo erantzunen artean agertuko da ziurrenik. *Pedro eta otsoa* idatzi diren lehenengo musika-ipuinetako bat da, gerora idatzi ziren musika-ipuinen ezinbesteko erreferentzia eta gehien interpretatu, grabatu eta moldatu direnetako bat.

Oraingo honetan, baina, kontua ez da soilik Sergei Prokofievek idatzitako musika-ipuina entzutea. Berreskuratu eginen dugu klasikoetan klasikoa den hau eta gaurkotu egin dugu, Suzie Templetonek 2006an zuzendutako film laburraren laguntzaz.

Sarrerak pertsonaiengana eta hauek identifikatzen dituzten musika-tresnetara hurbilduko gaitu eta, ondoren, labor-metraia ikusi eta Prokofieven musikaren interpretazioaz gozatuko dugu, Carl Davisen zuzendaritzapean ariko den Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren eskutik.

Musikak eta irudiak dena adierazten dute eta berauek kontatuko dizkigute Pedroren, otsoaren eta gainerakoen abenturak.

Sergei Prokofieven musika eta ipuina

Pedro eta otsoa ipuina, Segei Prokofievek 1936an eta 15 egun baino gutxiagoan idatzia, “haurrentzako musika-ipuina” generoan lehena izan zen. Ipuin honek lehenengo aldiz fusionatzen ditu hitza eta musika, elkarren osagarri, eta emaitza magikoa erdiesten du, istorioa eta musikaren mezua aldi berean iristen zaizkigula burura zein bihotzera.

Ipuina –Errusiako ipuin zahar batean oinarritua- apal samarra da baina, musikaren laguntzaz, handiagotu egiten da.

Musika, argia eta bikaina, joriagoa egiten du ipuinak berak.

1. eranskinean, Prokofievek idatzitako ipuinaren argumentua aurkituko duzue.

Sergei Prokofiev, XX. mendeko Errusiako musikagile handienetakoa, ez zen haurrentzako lan xume bat egitera mugatu, aitzitik ere, maisu-lan hau sortu zuen, kritikoez bere lanen artean onenetarikotzat jotzen dutena. Egilea aitzindaria izan zen, klasikoetan klasikoa, eta lana, berriz, egin diren didaktika-lan nabarmenetarikoa, musika irakasleek eta baita publikoak ere oso ezaguna dutena.





Sergei Prokofiev (1891-1953)

1891n jaio zen, Ukraniako herri txiki batean.

Amarengandik jaso zituen bere lehenengo musika ezagutzak eta oso gaztea zela hasi zen konposatzen. San Petersburgoko kontserbatorioan piano eta konposizio ikasketak burutu zituen maisu handien eskutik, Rimsky Korsakoven eskutik, besteak beste. Kontserbatorioan Rubinstein Saria irabazi zuenean, amak Londresera joateko bidaia oparitu zion eta han Diaghilev ezagutu zuen. Hantxe izan zuen lehenengo kontaktua koreografo errusiarrarekin eta Europarekin.

Errusiako iraultzaren urte gogorak pasatuta (1916-1918), lasaiago aritu nahi izan zuen eta jaioterritik urrundu egin zen.

1918tik 1932ra arte AEBn, Alemanian eta Frantzia bizi izan zen eta birak egin zituen piano-jotzaile moduan bere lanak interpretatuz, pianorako bere bost kontzertuak eta tresna bererako bere lehenengo bost sonatak, esate baterako.

Urte horietan honako lan hauek konposatu zituen: *Hiru laranjen amodioa* opera (1919), *Altzairuzko pausoak* baleta (1927), *Sinfonia Klasikoa* (1918) eta lehenengo hiru *Piano eta orkestrarako Kontzertuak* (1923) besteak beste.

1928an Errusiara itzuli zen kontzertu sorta ematera eta, halako harrera beroa jaso zuen, bere borondatezko erbesteratzea zalantzan jarri

30eko hamarkadatik aurrera, Stalinek eta Sobietar Konpositoreen Batasunak hala aginduta, musika ekoizpenek jite nazionalista argia izan behar zuten, Errusiako jendarte berriaren bertuteak ezagutaraziko zituena eta oso gogor aritu ziren musika esperimentazioaren aurka.

Sistema politiko haren presioa ikaragarria izan arren, mundu osoan zehar kontzertuak ematen ibili ondoren, 1933ko udaberrian zehar jaioterrira itzultzea erabaki zuen Prokofievek. Moskuko agintari komunistek euren garaipen argia ikusi zuten konpositorearen itzuleran.

Sergei Prokofievek doitasunez eta asmamenez konposatzen jarraitu zuen. Horren erakusgarri, garai haietako lanak: *Kijé tenientea* (1934), *Alexander Nevsky* (1939), *Iban Beldurgarria* (1945), *Romeo eta Julieta* baleta (1935), eta *Pedro eta otsoa* musika-ipuina (1936).



Baina 2. Mundu Gerraren ostean, Stalinen “musika diktaduraren” jarraibide zurrin eta murriztaileen kontra talka egin zuen konpositoreak estetika-aldaketarako zuen grinak.

Ordura arte gobernuaren begiko izanagatik ere, 1948an zentsuratu egin zuten “gehiegizko formalismoa eta harmonia kakofonikoak” erabiltzen zituela eta. Lirismo handiagoz konposatuko zuela agindu zuen, baina *Benetako gizon baten istorioa* opera (1948) zentsuratu egin zioten. Bere 7. *Sinfoniak* (1952) Stalin Saria irabazi zuen eta honek gobernuaren onespena itzuli zion hil baino urtebete lehenago.

Bere lan oparoak kontraste asko ditu eta joan den mendeko musikaren erakusgarri garbia da. Espresionismoa, klasizismoa eta lirismoa erabiltzen ditu eta kontu fantastikoak oso gustuko ditu. Bere musika lengoaia paregabea eta oso pertsonala da, harmonia eta erritmo oparotasun handikoa, garaiko estetikaren ondorioz.

Prokofieven musika gehiena melodikoa da, entzuten erraza, eta ezusteko harmoniak eta XX. mendeko erritmoak agertzen dituen erromantizismoaren kutsua du. Egia da, hala ere, bere musika nahikoa intelektuala eta disonantea dela eta joera berriekin esperimentatu zuela. Baina bere ekoizpenaren ezaugarri nagusiak melodiaren trataera inspiratua, harmonia, erritmoa eta orkestrazioa dira.

Lanaren jatorria

Alemanian, Frantzian eta AEBn ibilitako urteen ondotik, 1933an Sergei Prokofiev Errusiara itzuli zenean, P. Chaikovskiyren *Intxaur hauskailua* baleta entzun zuen Moskuko Haur Antzokiko orientabideei jarraitutako emanaldi batean. 1936ko otsailean izan zen lehenengo emanalditik, Natalia Saz, Antzokiko arduraduna eta orkestra sinfonikoaren zuzendaria, haurrak orkestra sinfonikoaren soinetara eta musika tresnetara hurbilaraziko zituen musika egokiaren bila zebilen.

Eta hainbestez, Prokofievi proposatu zion Sazek konposizio lan bat egitea, helburu horiek beteko zituen.

Natalia Sazek Errusiako ipuin zahar baten pertsonaiak –haur bat eta zenbait animalia- orkestrako instrumentu ezberdinekin identifikatzeko eskatu zion, horrela, adibidez, zeharkako txirula txoria izan zitekeen. Ideia gustatu egin zitzaion konpositoreari, baina ez, ordea, proposatutako testua eta, azkenean, Prokofievek berak idatzi zuen testua. Astebetean piano konposizioa bukatu zuen eta, egun batzuk aurrerago, orkestrazioa osatu zuen.




1936ko maiatzaren 2an estreinatu zen *Pedro eta otsoa* ipuin sinfonikoa, konpositoreak berak Moskuko Orkestra Filarmonikoa zuzendurik eta Natalia Sazek narrazioa eginda.

Sobiet Batasunak eta baita Mendebalde osoak ere onetsi zuten lana, bere izaera didaktikoarengatik eta sineskortasunarengatik. Musikak entzule guztiak, ume zein heldu, erakartzen ditu eta maisutasun handiz uztartzen ditu musika baliabide argiak eta haurrentzako gai herrikoiak.

Bere lan bikain honekin, balio handiko oinarria ezarri zuen Prokofievek, gerora konpositore askok baliatuko zutena musika-ipuinak sortzeko.

Erabiltzen dituen baliabide nagusietakoak hauexek dira, alegia, orkestrako zenbait instrumentu identifikatzea ipuineko pertsonaiekin eta musika-tema batzuekin, aire eta erritmo tarte desberdinek, ezaugarri eta testura desberdinez, iradokitzen duten argumentuaren deskribapena, eta musikaren eta testuaren arteko oreka.

Suzie Templetonen filma



Fitxa teknikoa

Jatorrizko izenburua: Peter and the wolf

Zuzendaria: Suzie Templeton

Gidoia: Suzie Templeton eta Marianela Maldonado

Urtea: 2006

Herraldea: Britainia Handia, Polonia, Norvegia, Mexiko, Txekiako Errepublika.

Generoa: animazioa

Iraupena: 32 minutu

Zinematografia: Hugh Gordon eta Mikolaj Jaroszewicz

Fotografia: Mikolaj Jaroszewicz

Musika: Sergei Prokofiev

Gida honen hasieran aipatu bezala, kontzertuan Prokofieven musikak Suzie Templetonen film laburraren proiektioarekin partekatzen du protagonismoa.

Guztiok entzun dugu noizbait irudi batek mila hitzek baino gehiago esaten duela, baina, kasu honetan, musika eta irudia izanen dira *Pedro eta otsoa* ipuina kontatuko digutenak.



Uxue Uriz Sucunza 2009

Suzie Templeton (Hampshire, Ingalaterra, 1967) animazio-film zuzendaria, animatzailea eta idazlea da. Bere filmek oso kritika onak jaso dituzte eta sari ugari irabazi du, baina nazioarteko onarpena 2008an heldu zitzaion *Pedro eta otsoa* bere film laburrak Oscar saria jaso zuenean.

Filma Londresko Royal Albert Hallean estreinatu zen, 2006ko irailean, Londresko Philharmonia Orkestrak musika zuzenean jo zuela.

Film labur hau egiteko animazio teknika ezberdinak erabili zituen hala nola irudiz irudiko animazioa (stop-motion), txotxongiloak, maketak, eskalan egindako agertokiak eta post-produkzioa egiteko punta-puntako teknologia.



Oscar sariaz gain, film labur honek beste nazioarteko sari batzuk jaso zituen, Baita saria, adibidez, eta Annecyko Nazioarteko Animazio Jaialdiko saria, Frantzian, Europako sariketa garrantzitsuenetako bat dena.

Pedro eta otsoa ipuinaren animazio-ekoizpen berri honek istorio klasikoa eraberritu duen ideia originala da, ekologiarri eta gizon-emakumeok animaliekin eta naturarekin dugun elkarbizitzari garrantzi berezia ematen baitie.

Argumentuak Prokofievrek idatzitako ipuina berreskuratu du; haur bat –nahikoa txoratuta dagoen txori baten laguntzaz- jendea beldurtua duen otsoa harrapatzen saiatuko da. Jatorrizko bertsioan ehiztariek akabatu egiten dute otsoa, baina, honetan, Pedrok askatu egingo du otsoa, uste bezain gaiztoa ez den otsoa, sentimenduak ere badituena eta, gainera, desagertzeko arriskuan dagoena.

Honako esteka hauetan film laburra osorik ikusi eta gozatu dezakezue:

<http://cinemaseries.wordpress.com/2008/05/24/corto-pedro-y-el-lobo-ganadorde-los-oscar-2008/>

http://solocortometrajes.blogspot.com/2009/01/peter-wolf-suzietempleton_02.html



Pertsonaiak: Pedro, otsoa eta gainerakoak

Helburu didaktiko argia zuela, Prokofievek pertsonaia bakoitzaren izaera orkestrako musika-tresna ezberdinen bidez adierazi nahi izan zuen, eta baita lortu ere.

Ezagut ditzagun istorio honetako pertsonaiak eta pertsonaia horiek ordezkatzeko musika tresnak.

Gainera, atal honetan, lanerako zenbait jarraibide proposatuko dizuegu pertsonaia eta musika tresna horien inguruan aritzeko.

Edozein musika entziklopediatan eta, jakina, interneten aurkituko duzue orkestrako musika tresnen sailkapena, baina gida honetako 2. eranskinean eskema argigarria aurkituko duzue.

Horrez gain, Bibliografia atalean musika tresnak modu sakonean baina ulergarrian deskribatzen dituzten liburuak aurkituko dituzue.

Pedro, protagonista



Ume adoretu eta ausarta, bederatzi edo hamar urte ditu; aitonarekin bizi da eta animaliekin komunikatzeko gaitasun berezia du.

Pedroren ahotsa ordezkatzeko duten tresnak orkestrako harizko tresnak dira. Tamainaren eta altueraren arabera sailkatuz –txikienetik handienara eta altuenetik baxuenara–: biolinak, biolak, biolontxeloak eta kontrabaxuak.



Lanerako proposamenak:

- Pedro aitonarekin bizi da Errusiako herrixka txiki batean. Aurki ezazu herrialde handi hori mapan.
- Bila ezazu informazioa biolina osatzen duten parteei buruz.
- Zenbat biolin, biola, biolontxelo eta kontrabaxu dago –alde aldera- orkestra sinfonikoan?

Txoria eta txirula hegalaria



Gure txoria, txori gehienak bezala, izutia, bizia eta arina da. Pedoren adiskide leiala baita, otsoa harrapatzen lagunduko dio.

Zein tresna zeharkako txirula baino hobea txoriaren kantua adierazteko! Txirula musika tresna zaharrenetakoa da. Munduko herrialde guztietan daude txirulak, forma, tamaina, material eta tinbre ezberdinetakoak. Txirularen soinua gizakion ahotsaren antzekoa da eta baita txorien kantuen antzekoa ere; ezta eta leuna da.



Lanerako proposamenak:

- Txoriak animalia txikiak dira, zerua zeharkatzen dute grabitatearen legearen kontra eta basoak eta gure hiriak alaitzen dituzte beren kantuekin. Bila itzazu txori-izenak, baina ez itzazu ezagunenak aukeratu, ausart zaituz bizpahiru izen arraro bilatzen. Zenbat txori-izen arraro biltzeko gai zarete ikaskide guztien artean?
- Hurbil zaituz parke batera, eser zaituz edo etzan zaituz belarretan eta itxi begiak. Berehala entzungo duzu txoriren bat kantuan.



- Txoria imitatu nahi badugu egingo dugun lehenengo gauza txistu egitea izanen da. Txistu-lehiaketa proposatzen dizuegu, emaezue saria indartsuenari, loratuenari, finenari, txoriaren imitaziorik onenari...

Ahatea, oboea urmaelean



Ahateak gutxi egiten du hegan. Igeriketan trebea da, hori bai. Baina lurlean ibiltzean moldatzen da inon baino baldarrago. Gure ipuinean, ahatea otsoarengandik korrika ihes egiten saiatuko da, eta, horrenbestez, bizia galduko du.

Haize-zurezko musika tresnetako bat oboea da. Orkestrako gainerako tresnak jotzen ari badira ere, erraz ezagutuko dugu oboearen soinua, sudurkaria eta sarkorra baita.



Lanerako proposamenak:

- Saia zaitez sudurra estalita duzula hitz egiten, ikusiko duzu nola aldatzen den zure ahotsa.
- Gai ote zara ahateak bezala mintzatuta adiskide batekin hitz egiteko?
- Oboearen soinua airea elkarrengandik oso hurbil dauden bi kanaberen artean pasatzean sortzen da. Galde iezaiozu musika irakasleari nola lor dezakezun horrelako zerbait freskagarriak edateko kanabera txiki bat erabilia.



Katua, Klarinete katu-antzekoa



Katuak felidoen familiakoak dira, katamotzak, tigreak, lehoiak eta gepardoak bezalaxe. Katuak etxeko-animaliak dira betidanik eta mundu guztiak daki oso gaizki moldatzen direla txakurrekin.



Klarinetea ere haize-zurezko musika tresnen familiakoa da, oboea bezala, baina mihi bakarra du eta oboeak, berriz, bi.

Badira afinazio eta altura ezberdinetako klarineteak: rekintoa, kontraltua, baxua... Tresna honekin arintasun eta trebetasun handiak lor daitezke eta baita bestelako efektu interesgarri asko ere.

Lanerako proposamenak:

- Ba al dakizue nola esaten zaion euskaraz katuak egiten duen soinuari? Eta ahateak egiten duenari? Egin ezazue animalia zerrenda eta saia zaitezte bakoitzak egiten duen soinuari euskaraz nola esaten zaion asmatzen.
- Egia esatera, ahatea eta katua ez dira oso antzekoak. Ahatea animalia lasaia da, motela. Katua, berriz, mugitua, bizia, maltzurra eta isila. Eta baita amultsua, leuna, dotorea, apetatsua eta azkarra ere. Batzutan atzaparrak erakusten dituzte.
- Otsoa txakurraren arbaso basatia da. Baduzu edo izan al duzu inoiz katurik edo txakurrik etxean? Nola du izena?
- Txoriak eta ahateak bezala, katuak otsoa harrapatzen lagunduko dio Pedrori. Zein dira zure adiskiderik minenak, zerbait behar duzunean edo zerbait egin nahi duzunean laguntzen dizutenak?



Aitona, fagot marmarti samarra...



Pedroren aitona gizon serio eta arduratsua dirudi, Pedro mendira bakarrik joaten bada kezkatu egiten da.

Prokofievek aitonari egokitu dion tresna fagota da, haize-zur familiakoa, kaina bikoitzekoa da eta soinu adierazkorra eta indartsua du.



Lanerako proposamenak:

- Ziur aski oso gustura egoten zara aitona-amonekin. Ipuinik kontatzen dizute? Edo haiek txikiak zireneko istoriorik kontatzen dizute? Nolakoa da aitonaaren ahotsa? Grabea, fagotarena bezalakoa?
- Fagota orkestrako tresna grabeenetarikoak da, baina badira beste batzuk. Badakizu zein diren?



Ehiztariak... burrunbatsuak!



Ehiza - beste arrazoi batzuen artean-janaria lortzeko sortu zen, baina, egun, "kirol" bilakatu da.

Ez otsoak eta ez ehiztariek ere ez dute fama onik haur ipuinen munduan. Gurean, ehiztariak agertzerako Pedrok irtenbidea aurkitu dio egoerari, otsoa menderatua du.

Ehiztariak irudikatzeko burrunba handia egiten duten tresnak behar ditugu, zarata handia egiten dutenak, ikara sortzen dutenak... horixe! Tinbalak. Kontua "zarata egitea" baldin bada, perkusioa bezalakorik ez dago.

Lanerako proposamenak:

- Ekologiaren inguruko debatea proposatuko dizuegu oraingoan: benetan basatiak ote dira aske bizi diren animaliak? Ala basatia gizakia da?
- Ziur aski perkusio tresnak izanen dituzue musika gelan. Hartu, bada, tresna horiek eta irudika ezazue, aldeztu aurretik prestatu gabe, ehiza eszena bat.



Tronpa ulukaria? Otsoa da!



Gauza asko esan genezake otsoei buruz; erronka zaleak, menperatzaileak, oldakorrak..., baina hauek guztiak kontatu dizkiguten gauzak dira, izan ere, nork ikusi du hurbiletik otsoren bat? Ez dizuegu filmaren bukaera aurreratu nahi baina, ziur izan, jatorrizko ipuinaren

bukaerarekin alderatuta ezberdina dela, ñabardura etikoagoa eta ekologistagoa duela.

Tronpa bat ez da aski otso batekin aurrez aurre elkartzeak sortuko lukeen ikara adierazteko. Prokofievek hiru tronpa erabili zituen beldurra eta tentsioa adierazteko.

Tronpa haize-metalezko familiako musika-tresna da. Jatorria ehizaldietan du eta, beraz, musika tresna hau beste edozein baino egokiagoa da kasu honetarako. Tresna honen aitzindariak maskor handiak edo zenbait animaliaren adarrak dira. Orkestran erabiltzen dena kobrezko tutu luzea da (4-5 metro luze) biribilean bildua.



Lanerako proposamenak:

- Egin ezazue pertsonaia nagusitarako otsoa duten ipuinen zerrenda. Otsoaren izaera gogorra eta oldakorraren ordeztu, saia zaitzete izaera zeharo ezberdineko otsoa irudikatzen. Zein modutan aldatzen da ipuina horrela?
- Bila ezazu tronpari buruzko informazioa eta garai eta egoera ezberdinetan izan dituen erabilera ezberdinei buruzkoa.



Jarduerak

Instrumentuak, melodiak eta pertsonaiak

Konposizio lan honetako musika-tresnak hain ezaguterrazak izanik, gaiak hain argiak eta pertsonaiek hain ezaugarri bereziak izanik, asko dira hauen inguruko jarduera aukerak. Horien artean, honako hauek proposatzen dizkizuegu:

- Behin ipuineko pertsonaiak ezagututa eta musika-motiboak entzunda, gai ote zarete pertsonaia bakoitza bere musika konposizioarekin lotzeko? Prokofievekin bat al zatozte?

Pedro	1. motiboa
Aitona	2. motiboa
Txoria	3. motiboa
Ahatea	4. motiboa
Katua	5. motiboa
Otsoa	6. motiboa
Ehiztariak	7. motiboa

- Ariketa zaildu egin daiteke ezkerreko zutabearen beste animalia batzuk gehitzen baditugu (txakurra, astoa, sagua, hontza, zaldia...) eta eskuinaldekoan beste lan batzuetako konposizioak sartzen baditugu.
- Baietz zuek gai izan, zuen konposiziorako trebetasunari esker, pertsonaia horientzat beraientzat beste konposizio batzuk sortzeko, musika gelan dituzuen tresnak edota bestelako eguneroko gauzak erabilita!
Ipuinaren zuen bertsioa Prokofievek adinakoa izanen da...
- Denon artean animalia zerrenda luzatu dezakezue eta animalia berriak ordezkatzeko musika-tresnak bilatu. Adibidez, igelaren korroka irudikatzen "guiroa" bezalakorik ez dago, edo, "maraka" apalki erabilita kasik "ikus" egingo duzue sugea...



Soinu-banda

Suzie Templetonek Prokofieven ipuina eta musika hartu ditu abiapuntu bere aldaera zinematografikoa egiteko.

Zuek gauza bera egin dezakezue. Bideo kamera baldin baduzue, zuek zeuek izan zaitezkeite ipuineko pertsonaiak, horrek dakarren guztiarekin; karakterizazioa, mugimendua, eszena, etab., edo txotxongiloak egin ditzakezue, plastilinazko irudiak, siluetak edo bururatzen zaizuen edozer... Horrelakorik ez baduzue, ipuinaren atal nagusietako marrazkiak egin ditzakezue, baina, ez jarri mugarik zuen irudimenari, izan ere, marrazteak eta margotzeak edozer gauza irudikatzen bide aproposak dira-eta.

Eta orain, zer moduz alderantziz egiten badugu?

Prokofieven ipuinaren argumentua edo gustuko duzuen beste edozein istorio hartuta, eta Prokofieven irizpideari jarraituta, banda-soinua egin dezakezue: musika-tresnak aukeratu eta musika motibo egokiak sortu pertsonaia bakoitzarentzat eta istorioaren gertaerak adierazteko.

Interesgarria izanen da beste edozein film, film labur edo marrazki bizidunetako zatiren baten soinu-banda sortzea. Gogoan hartu gehien erabili beharko dituzuen musika-baliabideak tinbrea, ñabardurak, soinuen iraupena eta tenpoa direla.

Adibide gisa, hemen dituzue Prokofievek erabiltzen dituen efektu zenbait:

- Katua, otsoak harrapa ez dezan, zuhaitzera ziztu batean igotzen denean klarineteak eskala azkar eta gorakoa egiten du.
- Pedrok otsoa harrapatzeko adar batetik soka zuhaitzean behera botatzen duenean, soka tresnek *glissando* leun eta delikatu egiten du.
- Otsoa iristean, askozaz beldurgarriagoa ematen du hiru tronpak batean entzuten ditugulako *crescendo* handian.



Lapitza eskuan

Animazio film baten ekoizpenean ikaragarritzko lan talde handia aritzen da. Profesional hauen artean, diseinu-egileak eta marrazkigileak dira pertsonaiak sortzeko oinarria egiten dutenak. Nola imajinatzen dituzue Pedro eta gainerakoak? Marraztu egin ditzakezue eta gero mural handia osatu. Gero zuek egindakoak filmekoekin alderatzen ahal dituzue.

Eta berriz zirikatuko dugu zuen irudimena. Pertsonaia bakoitza dagokion musika-tresnarekin hobeki lotzeko, zer iruditzen zaizue Pedroz mozorrotutako biolina? Eta txoria txirula jotzen? Zergatik ez otso aurpegidun tronpa edo katuenak bezalako begiak eta biboteak dituen klarineta?

Deskribatu egiten duen musika

Deskripzio-musikak duen helburua, izenak berak adierazten duen bezala, entzulearengan irudiak edo deskripzioak sortzea da, gertaeren, gauzen, tokien, egoeren, pertsonen, izaeren... inguruan, eta hori oso modu zehatzean egitea, hain zuzen ere..

Forma edo estruktura asko ditu, haren ezaugarri nagusietakoa oso askea izatea baita.

Argi gelditu da, honezkero, Prokofievek trebezia handiz deskribatu zituela ipuineko pertsonaiak.

Beste musikagile batzuk ere idatzi dute musika deskribapenak egiteko asmoz. Hona hemen entzun ditzakezuen beste zenbait lan, deskribatzen dutena identifikatzeko:

- Haydnen *Lau Urtaroak*
- Beethovenen *Artzai Sinfonia*
- Berliozen *Sinfonia Fantastikoa*
- Debussyren *Itsasoa*
- Mussorgskyren *Erakusketa bateko koadroak*
- Saint Sænsen *Animalien Inauteria*



Eta hala bazan, ez bazan...

Hau izaten da haur-ipuin askoren bukaera.

Jatorrizko ipuinean, otsoa harrapatu ostean, Pedrok zoologikora eramatea erabakitzen du.

Suzie Tempeltonek, berriz, bukaera ekologistagoa planteatzen du, otsoa basoan askatzea, alegia.

Bestelako bukaerarik bururatzen zaizue? (adibidez: "... eta otsoa zoologikora heldu zenean..." edo "... behin otsoa aske...").

Inspiratuta baldin bazaude, gustuko dituzuen istorio zenbait aukeratu eta alda iezaiezue hasiera, sar ezazue argumentua hankaz gora utziko duen pertsonaia berriren bat edo asma iezaiezue oso bestelako bukaera.

Ariketa bikaina da zuek zeuen ipuinak idazten hasteko.

Bibliografia

AA.VV. (1993). *La música y los instrumentos*. Ediciones S.M., Madril.

AA.VV. (1983). *Cómo conocer los instrumentos de la orquesta*. Editorial Edad S. A., Madril.

Abbado, C. (1994). *La casa de la música*. Ediciones Destino, S.A., Bartzelona.

Ardley, N. (1989). *La música*. Biblioteca Visual Altea. Altea, Taurus, Alfaguara, S.A., Madril.

Guardiet, M.A. *Pedro y el lobo. Guía didáctica*. Gran Teatre del Liceu, Bartzelona.

Ricart, J. (1986). *Diccionario biográfico de la música*. Editorial Iberia S.A., Bartzelona.

Scholes, P.A. (1984). *Diccionario Oxford de la Música*. Edhasa, Bartzelona.

De Toro, S. (2007). *Propuesta didáctica: Pedro y el lobo*. Kordobako Udala.



Diskografia

Pedro y el lobo, Sergei Prokofiev, op. 67
“Saison Russe” orkestra
Andrei Christiakov, zuzendaria
Iñaki Gabilondo, kontalaria
HARMONIA MUNDI, Frantzia, HH987012

Pedro y el lobo / Historia de Babar
Orchestre de L’Ópera de Lyon
Kent Nagaro, zuzendaria
Miguel Bosé, kontalaria
WEA, 1994

Pedro y el lobo, musika-ipuina narratzaile eta orkestrarako, op. 67
Sergei Prokofiev
Orquesta Filarmónica de Gran Canaria
Pedro Halffter, zuzendaria
Fernando Palacios, kontalaria
“La mota de polvo” disko bilduma
AgrupArte Producciones, Vitoria-Gasteiz



Eranskinak

1. eranskina

Pedro eta otsoa. Testua.

Goiz lasai batean, Pedrok etxeko lorategiko atea ireki zuen eta zelai berdeetan barna ibiltzera atera zen.

Zuhaitz handi baten adarrik altuenean txori txiki bat zegoen, Pedroren adiskidea, eta, Pedro ikustean, agurtu egin zuen:

- “Egunon Pedro! Dena ongi dabil goialde honetan”.

Bitartean, larre artean zegoen aintzira batean, gustura ari zen igerian ahate bat.

Txoriak aintziraraino egin zuen hegan eta, hegoak altxatuta, zera esan zion ahateari:

- “ Zer txori mota zara zu, hegan egiten ez dakizun hori?”.

- “ Eta zer txori mota zara zu, igeri egiten ez dakizun hori?” –erantzun zion ahateak uretan murgiltzen zen bitartean.

Luze aritu ziren eztabaidan, elkarri nork bere abileziak erakutsi nahian, harik eta Pedrori zerbaitek arreta eman zion arte. Katua zen, isilean txoriarengana hurbiltzen ari zena, ahogozoa egiten zitzaiola.

- “Kasu!” –egin zuen oihu Pedrok-.

Eta ziztu batean, txoriak zuhaitzaren adarretaraino egin zuen hegan.

Aintziraren erditik, ahatea, sumindurik, karranka eta karranka ari zen. Katua, goseak, zuhaitzaren inguruan zebilen bueltaka, txori gaixoa zelatatzen.

Orduantxe agertu zen Pedroren aitona. Haserre bizian zetorren, Pedro, biloba, bakarrik joan zelako larrera.

- “ Toki hau arriskutsua da! Otsoren bat ager daiteke basotik eta txikiegia zara bakarrik ibiltzeko”.



- “Ni bezalako haur handiak ez gara otsoen beldur eta gustuko dugu mendian barna korrika ibiltzea” –erantzun zion Pedrok.

Baina aitonak eskutik heldu zion Pedrori eta etxera eraman zuen, burdin hesia giltzatuta.

Orduantxe, otso gris handia agertu zen basotik.

Zitzu bizian, katua zuhaitzera igo zen baina ahatea, ikararen ikaraz noraezean, aintziratik atera zen karranka etsi larrian. Eginahalak eginda ere, otsoa azkarragoa zen eta gero eta hurbilago zetorren ahate babesgabearen atzetik eta, azkenean, harrapatu eta haginkada batez irentsi zuen.

Lorategiko atearen atzetik, Pedrok dena ikusi zuen eta ideia bat bururatu zitzaion. Etxean sartu zen, soka lodi bat hartu zuen eta zuhaitzaren adar altuenetara iristen zen hormara gainera egin zuen salto. Handik, Pedrok zera esan zion txoritxoari:

- “Lagun iezadazu otsoa harrapatzen. Egin ezazu hegan bere gainean, baina kontu handiz, harrapa ez zaitzan”.

Txoria zalutasun handiz egin zuen hegan, ia otsoaren burua ukitzeraino, hura txoria harrapatzen saiatzen zen bitartean.

Pedrok korapiloa egin zuen soka eta poliki-poliki zuhaitzean behera jaitsi zuen otsoaren isatsa harrapatu zuen arte eta indar handiz hasi zen tiraka. Otsoak, bere burua harrapaturik ikusita, indar handiagoz hasi zen tiraka, baina egiten zituen saltoek gero eta estuago lotzen zuten korapiloa.

Orduan, otsoaren atzetik zetozen ehiztariak agertu ziren basotik, eskopetekin tiroka.

Pedrok oihu egin zien:

- “Ez ezazuela tiro egin! Txoritxoak eta biok otsoa harrapatu egin dugu! Lagun iezaguzue zoologikora eramaten”.

Eta denon artean otsoa askatu eta desfilean abiatu ziren. Pedro, zoriotsu, lehena zihoan, atzean ehiztariak zihoazen, otsoa zeramatela, desfilearen bukaeran aitona eta katua zihoazen. Haien gaintetik txoria zihoan hegan, pozaren pozez txioka. Eta arretaz entzuten baduzue, ahatearen karrankak ere entzun ahal izanen duzue, otso tripontziak bizirik irentsia zuen eta.



2. eranskina

